

IRABAZI ITURRIAK

Gure produktuak prezio dinamiko bat izango du, alegia, kostu aldakor bat izango du, eskariaren arabera aldatuko dena. Hasiera batean ezagutzera emate aldera, prezio baxuago bat ezarriko dugu, bezeroak erakarri eta ospea lortzeko. Ondoren, ospea lortutakoan, prezioa berezkora igoko dugu, hau da, hasiera batean eta izandako kostu guztiak kontuan hartuta ezarriko genuena.

Salbuespenak ere badira: gure produktua bakarka erosteko joera izango dutenez bezeroek, ezarritako prezioa finkatuko zaio, hau da, produktuak prezio finko bat izango du eta ez zaio aldatuko. Aitzitik, pertsona berak pultsera bat baino gehiago erosi nahiko balitu, alegia, seme-alaba bati baino gehiagori jarri nahiko balio, bolumenaren araberako prezioa finkatuko genioke, hau da, geroz eta pultsera gehiago erosi, orduan eta merkeago izanez. Betiere, familia direla berretsiko dugu, alegia, ahaidetasun bat izan behar dute.